



2004

# ANDREKALE

**Estitxu Eizagirre - Nekane Idarreta  
(HERNANI 2004)**



Urumea kaleari Andrekale esan izan dio beti hemengo jende edadetuak. Nekane Idarreta, Kaxko elkarteko kideak kontatzen duenez: “Gure etxean, aitak beti horrela izendatzen zuen gaur Kardaberraz den kalea. Baina Urumea zuen izen ofiziala”. Izen bikoiztasun horrek jakin-mina sortu zion Idarretari: “Zer da, jendearen ohitura, edo kaleak noizbait izan zuen izen ofiziala?”.

## IZEN OFIZIALA ZEN

Gai hori ikertzen hasi, eta artxibo lanari esker, Pepi Mujikak eta artxiboaren arduradunak dokumentu batzuk bilatu zituzten. Agirietan jartzen duenez, 1896an Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei gomendio egin zien ordura arte erdara hutsean idatzita zeuden kale izenen errotuluak euskaraz ere jartzeko. Horren ondorioz, Hernaniko Udalak egun Karda-

beraz kalea denari, bi izen hauek jarri zizkion: Andrekale euskaraz, eta Urumea kalea gaztelaniaz.

Beraz, ofizialki 1896tik Andrekale izen zen frogak badira, baina artxibo lan handia dago egiteko: izen hori noiz arte izan zuen, zergatik galdu zen, beste herri batzuetan izen hori azaltzen den.

**El objetivo de esta entrevista es que conste por escrito lo que hemos recibido por transmisión oral y sirva para una posterior investigación.**

## ZERGATIK “ANDREKALE”?

Dokumentu idatzietan ez da izenaren arrazoirik topatu. Ahozko testigantzetan oinarrituta, teoria bat baino gehiago daudela dio Idarretak: “Batziek esaten dute, Kale Nagusian finkatzen zirela denda doto-

*reak, eta apain jantzitako jendea. Aldiz, Andrekalen egiten zituztela beren lanak emakumeek*". Bi atariko etxeak dira nagusi Hernaniren egiturari, eta horrek laguntzen du herrian "gune publikoa" eta "pribatua" bereizita zeudela dioen teoria hau. Eta garai batean, emakumeek ohitura handia zuten aulkiak etxetik jaitsi, eta kalean eserita lanak eginez hizketan aritzeko. Horrekin lotuta, Nekane Idarretak kontatzen duenez: "Esaten da, emakumeak kartetan aritzen zirela Andrekalen. Horregatik, Urumea kalea festa antolatzerakoan, ohitura hori berreskuratzen saiatu gara".

Beste teoria batek dioenez, Andrekalen arropa garbitzaile asko bizi ziren. Aberats jendea Andrekalera etortzen zen arropa garbitzaileei bere jantziak uztera, Leokako garbategian harrikoa egin ziezaioten. Baliteke izenaren jatorria hori izatea.

Eta hirugarren teoria, honela azaltzen du Idarretak: "Ez ote zegoen generoen arabera kaleen banaketarik? Kale Nagusia gizonzkoena, Andrekale emakumeena, eta hirugarrena, Atzietas, animaliena".

Ikusten denez, Andrekalea izena, garai bateko gizar-tearen aztarna bizia da. Garai hartako Hernaniko ohitura, bizimodu eta gizon-emakumeen arteko harremanak nolakoak ziren aztertzeko bide ematen duena. Nola ikertu, ordea? Ahozko testigantzak gal-

tzen ari dira. Horregatik, artxiboa arakatzea, eta ez bakarrik Hernanikoa, da bide ziurrena. Nekane Idarretak ikerlariak animatu nahi ditu: "Oso lan interesgarria litzateke izen horren atzean dagoen historia aztertea".

### IZENA BERRESKURATU BEHARRA

Nekane Idarretak izen hori berreskuratzeak duen garrantzia argitu du: "Hernanin ez dago emakume izen duen kalerik, badirudi herri honetan ez garela emakumeak existitu". Herriko emakume talde batek, Kaxko Elkartearen bidez, Andrekale izena berreskuratze saioa egin zuen iaz. Urte horretan, ordea, Kardaberaz jaio zeneko 300. urteurrena ospatzen zen, eta ez garairik onena kaleari izena aldatzeko. "Baina emakumeok jendaurrean ere agertu behar dugu herrian, eta alternatiba bat bilatzen saiatuko gara. Adibidez, bi izenak ofizial izatea" proposatzen du Nekane Idarretak.

**Parece que las mujeres no han existido en Hernani, ya que no aparecen sus nombres públicamente.**

**La recuperación del nombre de Andrekale sería ser justos/as con la aportación de las mujeres a la historia de Hernani.**

